

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Basauriko Udala****2019ko ekitaldiko Lan-Eskaintza publikoa**

Alkateak 1287/2019 Dekretua onetsi du, 2019ko martxoaren 22an. Honelaxe dio bertako testuak:

Lehenengoa: Plantillan emandako aldaketak ikusita, udal arloetako ordezkarietzek proposatutako langile-premiak aztertuta, eta negoziazio kolektiboaren ostean, Udalaren 2019rako lan-eskaintza publikoa onesten da, Erabaki honen eranskinean ezarritakoaren arabera. Hala egiten da, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 70. artikuluan, eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen 22. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. Bestalde, artikuluko horiek biek dioten bezalaxe, enplegu publikorako eskaintza egingo da aurrekontuan diru-kopurua esleitua duten giza baliabideen premiak langile berriekin betetzeko.

Bigarrena: Lan-eskaintza publikoa bat dator 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorrak arautzen dituen uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikuluekin, non jasotzen diren udaltzaingoetako langile berrientzako eta barne sustapenerako irizpideak.

Hirugarrena: Eranskinean jasotakoak izango dira aipatutako lan-eskaintza publikoan aurreikusitako plazei dagozkien hizkuntza eskakizunak. Hala egingo da, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen V. Tituluan (hizkuntza normalizazioari buruzkoa) adierazitakoa betetzeko, eta apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritako (horrek arautzen du euskararen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan). Halaxe izango da, bestalde, lan-eskaintza publikoari dagokion deialdia plazak betetzeko den arren, ez lanpostu zuzenak betetzeko —lanpostuei dagozkien hizkuntza eskakizunak Udalaren indarreko lanpostuen zerrendan finkatuta daude, eta bat datoz Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek bere garaian egindako txostenekin—.

Derrigorrezko eskakizuna ezarrita daukaten plazetan (dagozkion deialdian zehaztuko da bakoitzaren hizkuntza eskakizuna), nahitaezkoa izango da dagozkion hizkuntza eskakizuna izatea plaza eskuratzeko. Kasu horietan, hizkuntza eskakizuna egiaztatu behar da oinarrietan zehaztutako moduan.

Gainerako plazetan, berriz, euskararen ezagutza merezimendu gisa balioetsiko da, eta ehuneko bat esleituko zaio. Hautaketa-prozesuan lor daitekeen gehieneko puntu-kopuru osoa kontuan hartuta, euskararen ezagutzagatiko merezimenduak ezingo du, inolaz ere, % 5 baino txikiagoa edota % 20 baino handiagoa izan, honako eskala honen arabera:

- 1. eta 2. hizkuntza eskakizunak: % 5 - % 10.
- 3. eta 4. hizkuntza eskakizunak: % 11 - % 20.

Horrela, bada, ikusita Giza Baliabideen atalburuak 2019ko martxoaren 20an egindako txostenak, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan jasotako eskumenak baliatuta, Alkatetza honek zera

XEDATZEN DU:

Lehenengoa: 2019ko ekitaldiari dagokion lan-eskaintza publikoa onestea.

Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Basaurin, 2019ko martxoaren 22an.—Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta



ERANSKINA
2019KO EKITALDIKO LAN-ESKAINZA PUBLIKOA
SARBIDE LIBREKO SISTEMA

Taldea (7/07 Legearen artikuluaren arabera)	Sailkapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
C2	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: udaltzaina	Udaltzaina	6	2

TURNO PROMOCIÓN INTERNA

Taldea (7/07 Legearen artikuluaren arabera)	Sailkapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
C (C1)	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: udaltzaina	Udaltzaingoko Ofizial Ordea	2	2
C (C1)	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: udaltzaina	Lehen Mailako Udaltzaina	3	2

Deialdi bakoitzean zehaztuko dira eskainitako plazak lortzeko prozedura eta baldintzak.